



Ikasgaiaren programa

LITERATURA UNIBERTSALA

1. IKASGAIAREN HELBURUAK

H1. Literatura-testuak bakarka nahiz taldeka irakurtzea, irakurketa librea, taldeko irakurketak eta tertulia literarioak eginez.

H2. Idazlanak sortu zireneko testuinguru historiko eta soziala ezagutzea, literatura-testu osoak edo pasarte esanguratsuak irakurriz eta interpretatuz.

H3. Literatura unibertsala osatzen duten mugimendu estetikoetako generoen eta idazlan eta egile garrantzitsuenen ezaugarriak ezagutzea, egile eta lanik garrantzitsuenak identifikatuz eta historian zehar behin eta berriz agertzen diren gaiak aztertuz.

H4. Idazleen, testuen edota testuinguruaren inguruko ahozko nahiz idatzizko lanak/aurkezpenak sortzea, baliabide egokiak erabiliz eta taldeko zein bakarkako dinamikak errespetatuz.

2. IKASGAIAREN EDUKIAK

1. LITERATURAREN SARRERA

- 1) Literatura zer den + oinarriak

2. LITERATURA GREZIARRA ETA LATINDARRA

- 2) Mitologia: Mitoa kontakizun moduan. (Zer da, zertarako balio du, zeintzuk gai lantzen ditu...), poesia epikoa edo epopeia, prosa (Esopo), antzerkia.
- 3) Greziar eta latindar gaiak: heroien ekintza handiak, ekidin ezin den patua, heriotza maitasunagatik. Mendekuak...

3. EUSKAL LITERATURA + ALEGIAK (BIZENTA M. + ERRONKA)

- 4) Alegiak euskal literaturan: ezaugarriak, egile/lan esanguratsuak + erronka (integrazio jarduera).

4. ERDI AROKO LITERATURA

- 5) Testuingurua + euskal literaturaren egoera.

5. ERRENAZIMENTUA ETA KLASIZISMOA

- 6) Klasikoak bueltan datoz: Testuinguru orokorra. HUMANISMOA, kontzientzia historikoa eta zientziaren zentzu berria.
- 7) Errenazimendua eta beste arte batzuk.

6. ARGIEIEN MENDEA ETA ERROMANTIZISMOA

- 8) XVIII. Mendeko literatura, estilo ilustratua eta gai nagusiak.
- 9) XIX. Mendea eta mugimendu erromantikoa.
- 10) Genero nagusiak: Erdi arora buelta, novela historikoa, legendak, ihes mistikoa.
- 11) Gaiak: heroi erromantikoa, emakumea, heriotza, terrorea.

7. XIX. MENDEKO LITERATURA

- 12) Erromantizismoa.
- 13) Erromantizismoa Euskal literaturan.

8. XX. MENDEKO LITERATURA

- 14) Mugimendu orokorrak.
- 15) Gerraurrea + olerkariak.
- 16) Gerraostea + "Gernika" filma (iruzkina).

-Ikasgai honetako edukien gutxi gorabeherako banaketa hurrengoa da:

	UNITATE DIDAKTIKOA															
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
1. Ebaluaketa	■	■	■	■												
2. Ebaluaketa					■	■	■	■	■	■						
3. Ebaluaketa											■	■	■	■	■	■
SPS SAIOAK																

3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki:

JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

JAKINTZAK PRAKTIKAN JARTZEKO SAIOAK

Hainbat gairen inguruan trebatzeko saioak izango dira, ikasle bakoitzak modu autonomoan lan eginda eta irakaslearen laguntzarekin.

INTEGRAZIO JARDUERAK

Taldeka zein bakarka, hainbat zeregin gauzatu beharko dira saio hauetan, ikasgaiaren edukiak erlazionatuz.

4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzen eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko bi froga nagusi egongo dira:

AZTERKETAK

Azterketen bitartez edukiak eta hauen ulermenarekin erlazionatutako konpetentziak (helburuak) ebaluatuko dira.

INTEGRAZIO JARDUERAK

Integrazio jardueren bitartez, edukiak osatzeko aukera egongo da. Integrazio jarduerak taldeka zein bakarkako zereginak izan daitezke.

Egin beharreko lanaren arabera moldatuko dira ebaluazio-irizpideak eta integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dira dagozkion ebaluazio-irizpideen deskribapena.

GELAKO JARDUNA

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte hartzea
 - a. Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
 - b. Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Teknologiako ikasgaien Teknologiako apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.
 - c. Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza
 - a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
 - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia
 - a. Asistentzia: Ikasgaien justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da.
 - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
 - c. Puntualtasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
 - d. Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
 - e. Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetza: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

6. KALIFIKAZIO-SISTEMA

HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Hiruhileko guztietan ikaslearen nota kalkulatzeko sistema hurrengoa izango da:

EBALUAZIO BAKOITZEKO KALIFIKAZIOA				
ATALA	BALIOA (%)	BALDINTZAK		
Azterketak	60	Gainditu	Gainditu	
Integrazio jarduerak	30			Gainditu
Gelako jarduna	10			

BERRESKURAPENAK

Hiruhilekoak atalka berreskuratzeko aukera egongo da. Hirugarren ebaluaketaren berreskurapena zuzenean OHIKO DEIALDIAN izango da.

NOTA IGOERAK

Ikasturteko nota hobetzeko hainbat aukera egongo dira:

- > 1. hiruhilekoaren berreskurapena eginda 1. ebaluazioaren nota hobetu daiteke.
- > 2. hiruhilekoaren berreskurapena eginda 2. ebaluazioaren nota hobetu daiteke.
- > Ohiko deialdian ikasturteko nota hobetu daiteke.

